

## 130. ALDIZKARIA - 2009ko urriaren 21a

### LIZARRAGA

#### **Auzolana arautzen duen ordenantza. Behin betiko onespena**

Ergoieneko Lizarragako Kontzejuak, 2009ko maiatzaren 9an egin osoko bilkuran, ondotik ematen den erabakia hartu zuen:

Auzolana arautzen duen ordenantza hasiera batean onetsi zenetik 30 eguneko legezko epea erreklamazio, kexa eta oharrik aurkeztu gabe iragan denez, Kontzeju honek boz batez erabaki du:

- a) Delako ordenantza behin betiko onestea.
  - b) Delako ordenantza Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea, hasiera batez onetsitako testuarekin.
- Ergoieneko Lizarragan, 2009ko urriaren 2an.-Kontzejuko burua, Patxi Otamendi Goikoetxea.

#### **AUZOLANA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

##### 1. artikulua. Xedea.

Ordenantza honen xedea da auzolana edo herritarren lana arautzea, Ergoieneko Lizarragako Kontzejuaren mesederako egiten diren lan eta zerbitzuei dagokienez.

##### 2. artikulua. Oinarria.

Ordenantza hau, lehenik, auzolanaren bidez arautzen da, Lizarragako ohitura zaharra baita; orobat, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/95 Foru Legearen 53, 54 eta 55. artikuluek xedatzen dutenaren bidez.

##### 3. artikulua. Subjektu pasiboak

Ergoienean bizi eta bertako Udaleko erroldan eta zentsuan sartuta daudenek dute auzolana egin beharra.

Halaber, auzolana egin beharra izanen dute Lizarragako Kontzejuan etxebizitza izanik modu iraunkorrean bizi ez direnek; horren barnean sartzen dira hemen bizi direnak asteburuetan, oporretan edota egun solteetan.

Etxe bakoitzeko, kide bat egonen da auzolana egitera behartuta, kontuan hartu gabe nor den etxearen jabea.

##### 4. artikulua. Ondorengoak salbuetsita daude:

- a) Hemezortzi urtetik beheikoak eta hirurogeita bostetik goitikoak.
- b) Ezindu fisiko, psikiko eta zentzumenezkoak.
- c) Presondegietan giltzapetuak daudenak.

Bizilagunen batek bere izena Kontzejuaren erroldatik kentzen bada, auzolana ez egiteko asmoz, eta herrian bizi dela frogatzen bada, auzolanaren ordenantza bete behar dutenen zerrendan sartuko da.

##### 5. artikulua. Arauketa.

Lizarragako Kontzejua behartua dago auzolanean ari direnek izan ditzaketen istripuen arriskuak estaltzeko.

##### 6. artikulua. Auzolan motak.

Bi auzolan mota egonen dira: ohikoak, alde batetik, garbiketa eta mantentze lanak egiteko San Adrian eta San Klemente besten eta Aste Santuaren aurretik, etxe guztietako kide banak parte hartzeko beharrik gabe. Eta, bestetik, ezohikoak, etxe guztietako kide bana egotea beharrezkoa denean.

7. artikulua. Herritarren lana edo auzolana urtean bost egunetan egingen da, gehienez; egunak ez dira izanen ondoz ondokoak. Oro har, jaiegun ez diren larunbatak izanen dira auzolana egiteko egunak, goizeko zortzietatik ordu bietara, salbu eta justifikatuta legokeen kasu berezia bada. Lan aferak direla-eta bizilagunen batek ordu horietan ezin badu, Kontzejuari jakinaraziko dio, bereizkeriarik ekarriko ez lukeen beste ordutegi bateko auzolanen batera deitzeko. Beste lagun batek egiten ahal du auzolana, betiere horretarako egokia baldin bada eta bere borondatez aritzeko prest bada. Aldez aurretik, ordezipen horren berri emanen zaio Kontzejuari.

Orobat, diru kopuru bat ordainduz libratu daiteke auzolanetik. 2009. urtean 20 euro izanen da auzolan bakoitzagatik. Diru kopuru hori urteroko KPIren arabera eguneratzen ahalko da, eta derrigorrezko dirubilketa

bidez ere eskatu daiteke. Urtean egiten diren auzolanak ez dira kontuan hartuko hurrengo urteetarako.

8. artikulua. Lizarragako Kontzejuak behar adina auzolan eginen ditu urtero, eta horietarako deia 48 ordu lehenago eginen du, bando bidez eta iragarki oholean agertuz, edo, salbuespen gisa, bestelako bitarteko bat baliatuz.

9. artikulua. Auzolan bakoitzeko lana Kontzejuko kide batek zuzenduko du.

10. artikulua. Lizarragako Kontzejuak, interesdunek eskatuta, auzolanetik libratzeko aukera emanen du obrak edo zerbitzuak beste bitarteko batzuk baliatuz egiten badira, hala nola garraioa, bestelako makina batzuen bidezko lanak, lantegietako lanak etab. Lehendik egindako lanak direla eta, ez da auzolanetik libratuko Kontzejuaren Auzolan Batzordeko ordezkariak ez badie oniritzia idatzita ematen auzolana egin aitzin.

Iragarkiaren kodea: L0923699